

nik gabeko eguna». Ondorioz, 119 atsedeen egun atezatzen dira urtean eta urteko hilabete gehienetan atsedeenaldia kopuru beretan banatuko dira, honela, alegia:

Urtarrilean: .....	10 atsedeenaldia
Otsailean: .....	9 atsedeenaldia
Martxoan: .....	10 atsedeenaldia
Apirilean: .....	10 atsedeenaldia
Maiatzean: .....	10 atsedeenaldia
Ekainean: .....	10 atsedeenaldia
Uztailan: .....	10 atsedeenaldia
Abuztuan: .....	10 atsedeenaldia
Irailan: .....	10 atsedeenaldia
Urrian: .....	10 atsedeenaldia
Azaroan: .....	10 atsedeenaldia
Abenduan: .....	10 atsedeenaldia

Donostia-San Sebastián, 2004ko urtarrilaren 28a.

### Zk-3236

EBAZPENA, 2004ko maiatzaren 21ekoa, Lan eta Giza Segurantzako zuzendariarena, «Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako» hitzarmen kolektiboaren erregistra eta argitara dadila xedatzen duena.

8602345 C.C.O.C. espedientea.

Ikusi da aipatutako espedientea, «Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako» hitzarmen kolektiboari buruzkoa.

#### AURREKARIAK

Aipatutako Hitzarmen Kolektiboaren testua, 2004ko abenduaren 19an batzorde negoziatzaileak sinatua, 2004ko maiatzaren 6an iritsi zen Lan Zuzendaritzara. Hitzarmen hori hiru Lurralde Historikoetarako izango da. Halaber, Mahai Negoziatzailearen eratzegiria, Hitzarmenaren izenpearen agiria eta Gobernu Batzordearen 2004ko apirilaren 6ko Erabakia ere aurkeztu ziren.

#### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuari bu-

borales del año 2004, el día menos de trabajo a que se hace referencia en el último párrafo del Artículo 13.º del Convenio, resultando un total de 119 días de descansos en los doce meses del año, los cuales serán repartidos en el mismo número de descansos en la mayoría de los meses del año, de acuerdo con el siguiente detalle:

En enero: .....	10 descansos
En febrero: .....	9 descansos
En marzo: .....	10 descansos
En abril: .....	10 descansos
En mayo: .....	10 descansos
En junio: .....	10 descansos
En julio: .....	10 descansos
En agosto: .....	10 descansos
En septiembre: .....	10 descansos
En octubre: .....	10 descansos
En noviembre: .....	10 descansos
En diciembre: .....	10 descansos

Donostia-San Sebastián, a 28 de enero de 2004.

### Nº-3236

RESOLUCIÓN de 21 de mayo de 2004, del Director de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro y publicación del Convenio Colectivo del «Personal laboral docente y educativo del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco».

Expediente C.C.O.C. 8602345.

Visto el expediente referenciado, relativo al Convenio Colectivo «Personal laboral docente y educativo del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco», y

Resultando: Que con fecha 6 de mayo de 2004 tuvo entrada en esta Dirección de Trabajo y Seguridad Social el texto del Convenio Colectivo citado, suscrito el 19 de diciembre de 2004 por la Comisión Negociadora del mismo, cuyo ámbito territorial comprende los tres Territorios Históricos, así como la documentación consistente en las actas de constitución de la Mesa Negociadora, de firma del Convenio y acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 6 de abril.

Considerando: Que de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 90 del texto refundido de la Ley del Estatu-

ruzko Legearen testu bateginaren 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, eta maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretuan, Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuan eta hori garatzen duen 1982ko azaroaren 3ko Aginduan, eta Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatu zuen otsailaren 12ko 44/2002 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, beharrezko izapideak egin ondoren, bidezko da Hitzarmen Kolektiboa erregistratzea eta argitaratzea.

Adierazitako lege-aginduak eta ezarpen orokorreko gainontzeak ikusita,

Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariak hau

EBATZI DU:

1.– Euskadiko Hitzarmen Kolektiboen Erregistroaren Organo Nagusian erregistratzeko agindua ematea, eta Batzorde Negoziatzaileari jakinaraztea.

2.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2004eko maiatzaren 21a.

Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,  
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA,  
UNIBERTSITATE ETA IKERKETA  
SAILEKO LAN-LEGEPEKO IRAKASLE ETA  
HEZITZAILEENTZAKO HITZARMEN  
KOLEKTIBOA

LEHENENGO TITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA  
EREMUAK. ORDEZKO ZUZENBIDEA.

1. *artikulua*.– Lurralde-eremua.

Hitzarmen hau Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan aplikatuko da.

2. *artikulua*.– Langileak.

1.– Hitzarmen hau Berritzeguneko ikastetxe eta barrietan lanean diharduten lan-legepeko irakasle guztiari aplikatuko zaie, finko zein aldi baterako izan.

2.– Honakoak Hitzarmen honen aplikazio-eremutik kanpo utziko dira:

a) Funtzionario publikoak.

b) Gizarte, Kultura eta Erligioa irakasgaiko irakasleak.

to de los Trabajadores aprobado mediante Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, en relación con el Real Decreto 1040/1981, de 22 de mayo, el Decreto del Gobierno Vasco 39/1981, de 2 de marzo y la Orden de 3 de noviembre de 1982 que lo desarrolla, así como el Decreto 44/2002, de 12 de febrero, por el que se establece la Estructura Orgánica del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y tras los trámites pertinentes, procede el registro y publicación del citado Convenio Colectivo.

Vistos los preceptos legales citados y demás de general aplicación,

El Director de Trabajo y Seguridad Social Resuelve:

RESUELVE:

1.– Ordenar su inscripción en el Órgano Central del Registro de Convenios Colectivos de Euskadi, con notificación a la Comisión Negociadora.

2.– Disponer su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de mayo de 2004.

El Director de Trabajo y Seguridad Social,  
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

CONVENIO COLECTIVO PARA EL PERSONAL  
LABORAL DOCENTE Y EDUCATIVO DEPENDIENTE  
DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEL  
GOBIERNO VASCO

TITULO PRIMERO  
DISPOSICIONES GENERALES

CAPITULO I  
ÁMBITOS. DERECHO SUPLETORIO.

*Artículo 1*.– Ámbito territorial.

El presente Convenio es de aplicación a todo el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 2*.– Ámbito personal.

1.– El presente Convenio será de aplicación a todo el personal laboral, fijo o temporal, que preste sus servicios en centros escolares públicos y circunscripciones de Berritzegune.

2.– Queda excluido del ámbito de aplicación de este Convenio:

a) El personal que tenga la condición de funcionario/a público.

b) El personal que presta servicios como profesor/a de la asignatura Sociedad, Cultura y Religión.

c) Eusko Jaurlaritzako langileak diren eta EAEko ikastetxe publikoetan diharduten ofiziozko profesionalak, garbitzaileak eta sukaldariak, administrazio-langileak eta mendeakoak.

**3. artikulua.**– Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean bertan sartuko da indarrean, eta bere ondorio ekonomikoek atzerako eragina izango dute, 2003ko urtarrilaren 1etik hasita. Hitzarmena 2003ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

**4. artikulua.**– Ordezko zuzenbidea.

Hitzarmen honetan aurreikusten eta arautzen ez den guztirako, Langileen Estatutuari eta aplikatu ahal diren gainerako lege-xedapenei eta araudiei egingo zaie kasu.

II. KAPITULUA

HITZARMENA SALATZEA, BERRIKUSTEA ETA LUZATZEA

**5. artikulua.**– Hitzarmena salatzea eta luzatzea.

Hitzarmen hau urtez urte luzatuko da 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, isilbidez kontratua berrituz, non eta izenpetzen duten alderdietakoren batek berariaz salatzen ez duen.

III. KAPITULUA

BATZORDE PAREKIDEA

**6. artikulua.**– Batzorde Parekidea.

1.– Hitzarmen hau sinatzen denean, Batzorde Parekidea eratuko da. Batzordeak zeregin hauek izango ditu: itundutakoa interpretatzea, aztertzea eta betetzen dela zaintzea, bai eta, halaber, tresna juridiko hau eta bere eranskinak osatzen dituzten gaien jarraipena egitea eta garatzea, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

Batzordearen ebazpenak lotesleak izango dira, administrazioako erakundeei eta erakunde judizialei legeek eman dizkieten eskumenei kalterik egin gabe.

Batzorde honi zereginen jarraipena egin ahal izateko beste informazio helaraziko zaio.

2.– Beste barruti batzuei legez ematen zaizkien eskumenak alde batera utzita, Batzorde Parekidearen esparruan, Administrazioak eta sindikatuek izango dute eskumena plangintzaren, plantillen eta hizkuntza-eskakizunen arloan, kolektibo honetako irakasleak zuzenean ukitzen dituzten gaiei buruz erabakitzeke. Esparru horretan, batik bat, etorkizunean antola litezkeen irakasleak funtzionario bihurtzeko prozesuak eta horiei zuzendutako lan-eskaintza publikoak jorratuko dira.

3.– Batzorde Parekideak 16 kide izango ditu gehienez ere; eta kide horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta hitzarmen hau izenpetzen duten sindikatuak ordezkatuko dituzte, proportzio berean. Halaber,

c) Los/as profesionales de oficio, personal de limpieza y cocina, personal administrativo y subalterno que, dependientes del Gobierno Vasco, presten servicios en centros públicos de la C.A.P.V.

**Artículo 3.**– Ámbito temporal.

El presente Convenio entrará en vigor el día de su firma, retrotrayéndose sus efectos económicos al 1 de enero de 2003, y permanecerá vigente hasta el 31 de diciembre de 2003.

**Artículo 4.**– Derecho Supletorio.

En todo lo no previsto y regulado en el presente Convenio se estará a lo dispuesto el Estatuto de los Trabajadores y demás disposiciones legales o reglamentarias que resultaren aplicables.

CAPITULO II

DENUNCIA, REVISIÓN Y PRORROGA DEL CONVENIO

**Artículo 5.**– Denuncia y prórroga del Convenio.

El presente Convenio se prorrogará de año en año a partir del 1 de enero de 2004, por la tácita reconducción si no mediara expresa denuncia de las partes firmantes.

CAPITULO III

COMISIÓN PARITARIA

**Artículo 6.**– Comisión Paritaria.

1.– A la firma de este Convenio, se constituirá una Comisión Paritaria, la cual asumirá las funciones de interpretación, estudio y vigilancia de lo pactado, así como el seguimiento y desarrollo de cuantos temas integran este instrumento jurídico y sus anexos, durante la totalidad de su vigencia.

Sus resoluciones serán vinculantes, sin perjuicio de las competencias legalmente atribuidas a las entidades administrativas y judiciales correspondientes.

Se remitirá a esta Comisión la información suficiente para el seguimiento de las funciones.

2.– Salvando siempre las competencias que legalmente han de asignarse a otros foros, en el marco de la Comisión Paritaria, Administración y sindicatos entenderán de las cuestiones que en materia de planificación, plantillas y perfilación lingüística afecten directamente al personal de este colectivo. Serán objeto de especial tratamiento en dicho marco los procesos de funcionalización y ofertas públicas de empleo que para el personal docente de este colectivo pudieran convocarse en el futuro.

3.– La Comisión Paritaria, estará integrada, en igual proporción, por un máximo de 16 miembros, en representación del Departamento de Educación del Gobierno Vasco y de todas las centrales sindicales que fir-

zentral sindikal bakoitzak aholkularia izan dezake. Sindikatu bakoitzaren boto kualifikatua sindikatu bakoitzak duen ordezkari-tza ofizialari dagokiona izango da. Batzordeak ahalik eta hoberen funtziona dezan, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzako teknikari bat hautatuko da, eta teknikari horrek idazkari-lanak egingo ditu.

4.- Batzorde Parekidearen ohiko bilerarako deia bi hilabete behin egingo da. Ohiz kanpoko bilerei dagokienez, alderdiek idatziz eta, gutxienez, bilera egin baino bost egun lehenago egin behar dute eskaera (nolanahi ere, bi alderdiek bilera premiazkoa dela jotzen badute, epe hori laburragoa izan daiteke), eta argi eta garbi adierazi behar dituzte bileran aztertu nahi dituzten gaiak.

5.- Batzorde Parekidearen deialdirako idazkiak argi eta garbi zehaztu beharko ditu eguneko aztergaien zerrendan aztertu beharreko puntuak, bilera-eguna eta tokia. Bi alderdiek agertu beharko dute batzordean. Eguneko aztergaien zerrenda aldeek gutxienez hamar eguneko lehenago proposatzen dituzten puntuek osatuta egongo da, aurreko epigrafean aurreikusitako ohiz kanpoko kasuak salbu.

6.- Bi aldeek aurretik jakinarazi beharko dizkiote Batzorde Parekideari bai Hitzarmena interpretatzerakoan, indarrean dagoenean eta aplikatzerakoan sor daitezkeen desadostasun guztiak, bai Hitzarmenaren eremuan barneratzen diren langileak ukitzen dituen lanaroko beste hainbat gai. Halaber, Batzordea arduratuko da horien inguruko erabakiak hartzeaz.

Batzorde Parekidea ados jarriko ez balitz, bi aldeek bitartekaritzara jo ahal izango lukete. Hala eginez gero, edozein presio- edo gatazka-neurri hartu aurretik, eta ados jartze aldera, zortzi egun balioduneko epean bitartekaria edo adiskidetzalea izendatuko da bi aldeek proposatzen duten hirukotetik.

Sindikatu gehiengo ados badago Administrazioak alde bakarreko egintzaren ondorioz Hitzarmenari kalte larria eragin diola, gehiengo horrek ohiz kanpoko bilera egiteko eskatu ahal izango dio Batzorde Parekideari, eta honek hiru egun balioduneko epea izango du gehienez.

7.- Batzorde Parekidearen erabakiak -eta hauei dagozkien aktak- Hitzarmenaren eranskin gisa aurkeztuko dira eta gehienez ere 40 eguneko epean bete behar dira ebazten direnetik zenbatzen hasita.

8.- Hezkuntza Sailak behar diren neurriak hartuko ditu Batzorde Parekidearen erabakiak interesdunei jakinarazteko.

men este Convenio. Cada central sindical podrá asimismo contar con un/a asesor/a. El voto cualificado de cada sindicato será la que corresponde a su representatividad oficial. Para el mejor funcionamiento de esta Comisión, se nombrará un/a Técnico/a de la Dirección de Gestión de Personal, que actuará como Secretario/a.

4.- La Comisión Paritaria se convocará ordinariamente con carácter bimensual. En supuestos de carácter extraordinario, se reunirá siempre que las partes lo soliciten por escrito con una antelación mínima de cinco días (plazo que podrá ser inferior en casos de reconocida urgencia por ambas partes), expresando claramente los temas cuyo tratamiento se propone.

5.- La convocatoria de la Comisión Paritaria, deberá reflejar de manera detallada y precisa los puntos a tratar en el orden del día, lugar, fecha y hora de la reunión, siendo obligatoria la comparecencia de ambas partes. El orden del día estará compuesto por los puntos que se propongan por cualquiera de las partes con una antelación de al menos diez días a excepción de los supuestos extraordinarios previstos en el epígrafe anterior.

6.- Ambas partes someterán a conocimiento y resolución de la Comisión Paritaria, con carácter previo, todas las discrepancias en cuanto a la interpretación, vigencia y aplicación del Convenio de aquellas, así como otras cuestiones de tipo laboral que afecten al personal incluido en su ámbito.

Si no se alcanzare acuerdo en el seno de la Comisión Paritaria, ambas partes podrán someterse a mediación, en cuyo caso, con carácter previo a la adopción de cualquier medida de presión o conflicto, en el plazo de ocho días hábiles se designará el/la correspondiente mediador/a o conciliador/a de entre la terna que ambas partes propongan al efecto de mutuo acuerdo.

Cuando la mayoría de la parte sindical considere que un acto unilateral de la Administración hubiere vulnerado gravemente el Convenio, dicha mayoría solicitará una reunión extraordinaria de la Comisión Paritaria que se reunirá en el plazo máximo de tres hábiles a partir de su solicitud.

7.- Los acuerdos de la Comisión Paritaria serán considerados -con su correspondiente acta- como anexos del Convenio y deberán ser cumplidos en el plazo máximo de 40 días desde la adopción de la resolución

8.- El Departamento de Educación promoverá cuantas medidas sean precisas para la comunicación de los acuerdos de la Paritaria a las instancias interesadas.

IV. KAPITULUA  
LANA ANTOLATZEA

**7. artikulua.**– Lana antolatzea.

Lana antolatzea eta diziplina jartzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ahalmena da, horrela ezartzen baitute Langileen Estatutuak eta dauden edo argitaratu daitezkeen gainerako lege-xedapenek, eta, orobat, hitzarmen honen eraginpean dauden langileek lan egiten duteneko ikastetxeetan aplika daitezkeen xedapenek.

Hezkuntzako Administrazioak lan-kontratuaren araberago agintzen dizkien zerbitzuak eman beharko dituzte langileek, egutegiko urte osoan edo, kontratua urtebete baino laburragoa bada, kontratuak dirauen bitartean, hitzarmen honetako artikuluetan aipatzen diren jaiegunetan eta oporretan izan ezik.

**8. artikulua.**– Berritzeguneetako bilerak.

Berritzegune baten barrutian lanean diharduten hezitzaileek aldiari-aldiari eta bertako Zuzendaritzarekin ezarritako moduan, bilerak egin ahal izango dituzte dagokien zereginarekin erlazionaturako alderdiak koordinaatzeko; bilera hauek, behar bezala justifikatuta bada, langileek eskatuta ere egin daitezke.

Bileren egutegia ikasturte bakoitzaren hasieran ezarriko da, egutegia eta ordutegia zehazterakoan. Urtean gutxienez lau bilerak egin beharko dira (hiru hilean behin). Bileren deialdia behar adina denboraz bideratu ondoren, langileek gaiak proposatzeko aukera izango dute eta horiek eguneko aztergaien zerrendari gehituko zaizkio.

Urtero, ikasturte bakoitzaren hasieran, Berritzegune barrutian dihardutenek dagozkien ikasleen ezauzgarri eta beharrei buruzko informazioa jasoko dute.

BIGARREN TITULUA  
LANGILEEI BURUZKOA. HORNIKUNTZA

I. KAPITULUA  
LANGILEEN SAILKAPENA. PLANTILLA.

**9. artikulua.**– Langileen sailkapena, kategorien araberak.

Hitzarmen honen eremuan baneratzeko diren langileak honako kategoriaren batean sailkatuko dira, bertan dagozkien zereginak garatzeko beharrezko titulazio akademikoa kontuan hartuta:

A) IRAKASLEAK

Goi-mailako teknikariak (A taldea):  
Zuzendaria (desagertzekoa)  
Sailburua (desagertzekoa)

CAPITULO IV  
ORGANIZACIÓN DEL TRABAJO

**Artículo 7.**– Organización del trabajo.

La disciplina y organización del trabajo es facultad del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en consonancia con lo previsto en el Estatuto de los Trabajadores y demás disposiciones complementarias o que puedan publicarse, así como las aplicables a los Centros en que prestan servicios los/as trabajadores/as afectados/as por este Convenio.

El personal vendrá obligado a prestar los servicios que conforme a su contrato laboral le señale la Administración Educativa, durante todo el año natural o por el tiempo de contrato, si este fuese de menor duración, salvo fiestas laborables y vacaciones señaladas en el articulado de este Convenio.

**Artículo 8.**– Reuniones en Berritzegunes.

El personal educativo que presta servicios en la circunscripción de un Berritzegune, mantendrá periódicamente, en la forma que establezca con la Dirección del mismo –pudiendo ser a propuesta de los/as trabajadores/as cuando se estime justificada–, las reuniones precisas para la coordinación de distintos aspectos relacionados con su labor.

El calendario de reuniones se establecerá al comienzo de cada curso escolar, en el momento de la fijación del calendario y horario, debiéndose celebrar anualmente al menos cuatro reuniones (con una periodicidad trimestral). Una vez cursada, con la suficiente antelación, la convocatoria de reunión las/los trabajadoras/es podrán proponer cuestiones para su inclusión en el orden del día.

Anualmente, al comienzo del curso escolar, el personal de la circunscripción del Berritzegune recibirá información sobre las características y necesidades del alumnado a atender.

TITULO SEGUNDO  
DEL PERSONAL. PROVISIÓN

CAPITULO I  
CLASIFICACIÓN DEL PERSONAL. PLANTILLA

**Artículo 9.**– Clasificación del personal por categorías.

El personal comprendido en el ámbito del presente Convenio se clasificará, en función de la titulación académica requerida para el desempeño de sus funciones en alguna de las siguientes categorías:

A) PERSONAL DOCENTE

Personal Técnico de Grado Superior (Grupo A):  
Director (a extinguir)  
Jefe de Departamento (a extinguir)

Psikologoa-Pedagogoa  
 Bigarren Irakaskuntzako irakaslea  
 Musika eta Arte Eszenikoko irakaslea  
 Arte Plastiko eta Diseinuko irakaslea.  
 Logopeda (desagertzekoa)  
 Erdi mailako teknikariak (B taldea):  
 Zuzendaria (desagertzekoa)  
 Haur Hezkuntzako eta Lehen Irakaskuntzako irakaslea

Lanbide Heziketako irakasle teknikoa  
 Arte Plastiko eta Diseinu tailerreko maisua.  
 Logopeda

Haur Hezkuntzako eta Lehen Irakaskuntzako irakasle espezialista  
 Irakasle egokia

#### B) HEZITZAILEAK

Fisioterapeuta  
 Gizarte-langilea  
 Okupazio-terapeuta  
 Hezkuntza Laguntzako espezialista  
 Transkriptorea eta Materialaren egokitzalea  
 Beste batzuk (desagertzekoa):  
 Irakaskuntza Bereziatako irakaslea  
 Igeriketako irakaslea  
 Instruktoarea

Artikulu honetan aipatutako kategoriei dagozkien zereginak Hitzarmen honen II. Eranskinean biltzen dira. Batzorde Parekideak aipatutako kategorietako batzuen izendapena aldatzeko aukera ezberdinak proposatuko ditu eta 2004ko maiatzaren 31 baino lehen zehaztuko ditu 2004/2005 ikasturtean erabiliko diren izendapen berriak.

**10. artikulua.**— Langileen sailkapena, egonaldiaren arabera.

1.— Zerbitzuko egonaldiaren arabera, hitzarmen honen eraginpean dauden langileen artean, langile finkoak edo iraupen jakineko kontratua duten langileak bereizten dira.

2.— Iraupen jakineko kontratua duten langiletzat hartuko dira bitarteko langileak, obra edo zerbitzu jakineko kontratua ikasturte baterako duten langileak eta behin-behineko langileak.

Aldi baterako kontratuaren iraupena bederatzita hila betekoa izango da gehienez, hamabi hilabeteko epean, kontratu hori egitea eragin zuen gertaera jazotzen den egunetik hasita. Hori guztia Langileen Estatutuaren 15.1b) artikulua arabera egingo da, artikulu horrek aukera ematen baitu sektoreko hitzarmen kolektiboaren bidez kontratu-mota horrekin kontratatzeke irizpideak finkatzeko.

**11. artikulua.**— Plantilla.

Administrazioak eta sindikatuek hezitzaileen plantilla hauek aztertuko dituzte, hezkuntza-sistemako egi-

Psicólogo/a-Pedagogo/a  
 Profesor/a de Enseñanza Secundaria  
 Profesor/a de Música y Artes Escénicas  
 Profesor/a de Artes Plásticas y Diseño  
 Logopeda (a extinguir)  
 Personal Técnico de Grado Medio (Grupo B):  
 Director/a (a extinguir)  
 Profesor/a de Educación Infantil y Enseñanza Primaria  
 Profesor/a Técnico de Formación Profesional  
 Maestro de Taller de Artes Plásticas y Diseño  
 Logopeda  
 Profesor/a Especialista de Educación Infantil y Enseñanza Primaria  
 Profesor/a Idóneo

#### B) PERSONAL EDUCATIVO

Fisioterapeuta  
 Trabajador/a Social  
 Terapeuta Ocupacional  
 Especialista de Apoyo Educativo  
 Transcriptor/a y Adaptador/a de material  
 Otro personal (a extinguir):  
 Profesor/a de Enseñanzas Especiales  
 Profesor/a natación  
 Instructor/a

El contenido funcional de las categorías enunciadas en este artículo se corresponderá con lo expresado en el Anexo II del presente Convenio. La Comisión Paritaria estudiará distintas alternativas sobre la denominación de algunas de las categorías aquí enunciadas y -antes del 31 de mayo de 2004- determinará las nuevas denominaciones a incorporar al próximo curso escolar 2004/2005.

**Artículo 10.**— Clasificación del personal por razón de permanencia.

1.— Por razón de permanencia al servicio el personal afectado por el convenio se clasifica en personal fijo o personal contratado por duración determinada.

2.— Tendrá la consideración de personal contratado por duración determinada el personal interino, el personal con contrato de obra o servicio determinado contratado por curso escolar y el personal eventual.

La duración del contrato eventual será de un máximo de nueve meses dentro de un período de doce meses, desde la fecha en que se produjo la causa que justifique su utilización. Y ello conforme a la habilitación del artículo 15.1b) del Estatuto de los Trabajadores que permite que por convenio colectivo sectorial se establezcan los criterios de contratación en esta tipología contractual.

**Artículo 11.**— Plantilla.

Administración y sindicatos procederán al análisis de las presentes plantillas de personal educativo, al obje-

tura-beharrak kontuan hartuta, 35 orduko lanaldia eta lanarekin lotutako neurriei buruz Mahai Nagusiak emandako erabakiarekin bat datozen ekintzak susta daitezten.

## II. KAPITULUA LANPOSTUAK BETETZEA ETA LANPOSTU HUTSAK

### 12. artikulua.— Kontratazioa.

Langile berria hartzeko, Autonomia Erkidego hone-tako Administrazioak langileak kontratatzeko ezarri dituen arau orokorrak bete behar dira. Halakorik ezean, kontratazioaren arloan legeek xedatzen dutena beteko da.

Lan-kontratua, modalitatea zeinahi ere den, idatziz gauzatuko da, eta hiru aletan egingo da. Kontratuan parte hartzen duen alderdi bakoitzak ale bana izango du, eta bestea eskumena duen erakundearentzat izango da.

### 13. artikulua.— Probaldia.

Langile berriak probaldian egongo dira; probaldi honen iraupena honakoa izango da:

- 4 hilabetekoa goi-mailako tituludunentzat.
- 3 hilabetekoa erdi mailako teknikarientzat.
- 2 hilabetekoa hezitzaileentzat.

Probaldian, langileak eta Hezkuntza Sailak askatasun osoz suntsiaraz dezakete kontratua, aurretiko oharpenik egin gabe eta kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Lan-kontratu finkoa egin ez zaion langileari, finkoa izatea lortzen duenean, lanean aritutako egun guztiak balioztatuko zaizkio probaldirako eta antzinasunerako.

### 14. artikulua.— Lekualdatze-lehiaketa.

1.— Lan-legepeko hezitzaile finkoek urtero lekualdatze-lehiaketan parte hartu ahal izango dute lanpostu hutsak edo berriak eskuratu ahal izateko.

2.— Lanpostu bera hartzeko langile bat baino gehiago aurkezten bada, Batzorde Parekideak baremo bat egingo du, honako irizpide hauek kontuan izanik:

1.— Derrigorrezko lekualdatzea jasan duen langilea, eszedentziaduna izanik.

2.— Enpresan duen antzinasuna (langile finkoa duenean).

3.— Langilearena ez den barrutian aritzea, langilearen barrutian eszedentea egoteak eragin duenean egotea hori.

4.— LEZ-Sartzeko nota.

5.— Adin handiagoa.

3.— Aurreko ataletan adierazitako prozeduren bitartez ateratako lanpostu berrian lanean hasteko epea es-

to de que siempre en atención a las necesidades estructurales del sistema educativo, promover en su caso actuaciones conformes al Acuerdo de la Mesa General sobre jornada de 35 horas y medidas en relación con el empleo.

## CAPITULO II PROVISIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO Y VACANTES

### Artículo 12.— Contratación.

La admisión de nuevo personal se ajustará a las normas generales sobre contratación de trabajadores/as establecidas por esta Administración Autónoma y, en su defecto, por lo dispuesto legalmente en materia de contratación.

El Contrato de Trabajo, cualquiera que sea su modalidad, deberá formalizarse por escrito y por triplicado quedándose un ejemplar cada parte contratante y otro el Organismo competente.

### Artículo 13.— Período de Prueba.

El personal de nuevo ingreso quedará sometido a un período de prueba de la siguiente duración:

- . 4 meses para los/as Titulados/as Superiores.
- . 3 meses para los/as Técnicos/as de Grado Medio.
- . 2 meses para el personal educativo.

Durante el periodo de prueba, tanto el/la trabajador/a como el Departamento de Educación, podrá resolver libremente el contrato, sin plazo de preaviso ni derecho a indemnización.

Al personal no contratado como fijo, de acceder a esta condición, se le computarán todos los días trabajados como válidos para el periodo de prueba y para la antigüedad.

### Artículo 14.— Concurso de Traslados.

1.— El personal laboral educativo fijo contará anualmente con un concurso de traslados en los que se ofertarán puestos de trabajo vacantes o de nueva creación.

2.— En el caso de que haya más de un/a trabajador/a que aspire a la plaza, se seguirá un baremo a desarrollar por la Comisión Paritaria que prioritariamente ha de atender en su elaboración a los criterios siguientes:

1.— Trabajador/a que siendo excedentario en su circunscripción, es objeto de un traslado forzoso.

2.— Antigüedad -como fijo/a- en la empresa.

3.— Prestación de servicios en circunscripción distinta a la propia, cuando aquella viene motivada por el carácter excedentario de la misma.

4.— NRP-Nota de Acceso.

5.— Mayor edad.

3.— El plazo para la incorporación al nuevo destino obtenido a través de los sistemas expuestos en los apar-

leipena egin ondorengo ikasturtearen hasieran izango da.

4.– Prozedura horren bitartez lanpostua lortu duten langileek gutxienez bi urte egon beharko dute bertan, beste lekualdatzeren batean parte hartu ahal izateko.

5.– Urtero, ikasturte hasieran, Berritzeguneko barrutian lanean diharduten Hezkuntza Laguntzako espezialistek bete beharko dituzten ikastetxea/k banatzeari ekingo zaio. Banatze hori langileen adostasunez egingo da.

Adostasunik ez balego, lehentasun hauen arabera jokatuko da:

- 1.– Ikastetxean egonkortasuna izatea
- 2.– Gutxienez ikasturte bitan balio anitzeko gela aritu den langilea
- 3.– Berritzeguneko eremuan bertan erreferentziarik gabe geratu den langilea
- 4.– Berritzeguneko eremuan bere borondatez mugitu nahi duen langilea
- 5.– Berritzeguneko barrutian lanean hasitako langile finkoa
- 6.– Lan-legepeko langile ez finkoak

Edozein egoera larri dela-eta, Berritzeguneko zuzendaritzak ezinezkotzat jotzen badu langileek proposatutako banaketa, hori atzera bota dezake eta, ondoren, Langileria zuzendaritzari horren berri emango dio. Besterik ezean, Batzorde Parekideak emango du horri buruzko azken erabakia.

#### 15. artikulua.– Lan-uzteak.

1.– Beren borondatez lana utzi nahi duten langileek Hezkuntza Sailari jakinarazi beharko diote, idatziz eta lana utzi baino hamabost egun lehenago aurrez aurre eginez. Aurrez aurre garaiz eta behar bezalako forman hartuz gero, lan-harremana bukatzeko likidazioa egin beharko zaio langileari, eta likidazioa egin eta hurrengo hilabetean ordaindu beharko zaio.

2.– Behin-behineko langileek kontratua bukatzerakoan utziko dute kargua, itundutako epea edo luzapenarena bukatu delako. Ikasturte baterako obra edo zerbitzu jakinerako kontratatzen direnek, berriz, ikasturtea amaitzean utziko dute kargua. Bitarteko langileek ordezkatzeko duten titularra lanera itzultzean edo araudi espezifikokoaren arabera lanpostua betetzen denean utziko dute kargua.

#### 16. artikulua.– Erretiroa.

Hitzarmen honen eraginpean dauden langileak 65 urterekin erretiratuko dira. Adin hori betetzen denean hasiko da, hain zuzen ere, erretiroa. Langileak ikasturtearen bigarren seihilekoan betetzen baditu urteak, eta tartean dauden alderdiak bat etortzen badira, langileak lanean jarraitu ahal izango du ikasturtea bukatu arte.

tados anteriores, será al comienzo del curso escolar inmediatamente posterior a la adjudicación.

4.– Los/as trabajadores/as que hubieran obtenido destino por este sistema deberán permanecer dos años en el mismo, antes de poder participar en un nuevo traslado.

5.– Anualmente al comienzo del curso escolar, se procederá a la distribución del/de los centro/s escolar/es a atender por los/as Especialistas de Apoyo Educativo que prestan servicios en la circunscripción de Berritzegune correspondiente. Dicha distribución se realizará por consenso del personal.

En su defecto se atenderá a las siguientes prioridades:

- 1.– estabilidad en el centro
- 2.– personal que durante un mínimo de 2 cursos preste servicios en aulas polivalentes
- 3.– personal que queda sin referencia de centro dentro del ámbito del propio Berritzegune
- 4.– personal que voluntariamente quiere trasladarse dentro del ámbito del Berritzegune
- 5.– personal fijo incorporado a la circunscripción de Berritzegune
- 6.– personal laboral no fijo

Si por cualquier circunstancia suficientemente grave, la Dirección del Berritzegune entendiera inviable la distribución propuesta por los/as trabajadores/as, podrá desestimar aquella, comunicando dicha circunstancia a la Dirección de Personal. Será la Comisión Paritaria quien en última instancia resuelva al respecto.

#### Artículo 15.– Ceses.

1.– El personal que desee cesar voluntariamente deberá ponerlo en conocimiento del Departamento de Educación por escrito, con un preaviso de quince días. Recibido el preaviso, en tiempo y forma, se realizará al/la trabajador/a la liquidación correspondiente al terminar la relación laboral y se abonará dentro del mes siguiente a la misma.

2.– El cese del personal eventual tendrá lugar al finalizar el contrato, por expiración del plazo convenido o de la prórroga en su caso. El del contratado por obra o servicio por curso escolar a la finalización del mismo. El del personal interino, tendrá lugar cuando se reintegre el titular a quien sustituye el/la trabajador/a interino/a o se provea la plaza conforme al proceso previsto en la normativa específica.

#### Artículo 16.– Jubilación.

Se establece la edad de jubilación de los/as trabajadores/as incluidos/as en el ámbito de aplicación del presente Convenio a la edad de 65 años, surtiendo efectos el día de cumplimiento de la misma. Sólo en el supuesto en que la fecha de cumplimiento de la edad se halle en el segundo semestre del curso escolar, se podrá de mutuo acuerdo continuar prestando servicios hasta la finalización de dicho curso escolar.



Prestaziorako eskubidea izateko behar den gabealdia bete ez badu, langileak lanean jarraitu ahal izango du, prestaziorako eskubidea izan arte.

## HIRUGARREN TITULUA LANALDIA ETA OPORRAK

### I. KAPITULUA LANALDIA

#### 17. artikulua.— Lanaldia.

1.— Irakasleei 1.462 ordu aitortzen dizkien indarreko arduraldiko araubidean oinarria harturik, irakasleei dagokienez ikasturte bakoitzaren hasieran arautu behar dira asteko lanaldiaren praktika, lanaldiko eskola-orduak eta eskolarik gabeko orduak —ezin izango da orain indarrean dagoen eskolako ordutegia, ez eta eskolan eman beharreko denbora ere, gehiago zabaldu—, eta, hala behar bada, baita ordu osagarriak ere.

Ildo horretan, lanaldiko, arduraldiko eta eskolan eman beharreko denborako araubidea unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza publikoko irakasle funtzionarioentzat ezarritako araubidea bezalakoa izango da —kasu bakoitzean, dagokiona—.

Horretatik guztitik salbuetsita daude denboraldi laburragorako kontratatu diren langileak; lan-arauegiarekin bat etorritik, beren egungo lanaldiarekin jarraitu ahal izango dute. Halaber, ikastetxeetan beharrezkoa bada, lanaldi partzialean jarduteko kontratatu direnek lanaldi osoa egin ahal izango dute.

#### 2.— Hezitzaileak:

a) Urteko lanaldia gehienez 1.480 ordukoa izango da eta ikastetxe bakoitzaren eskola-egutegira egokitu beharko da.

b) Berezitasunen arabera, fisioterapeutek eta okupazio-terapeutek irakasleen antzeko dedikazioa izango dute.

c) Hezkuntza Laguntzako espezialistek hilero 10 ordu izango dituzte ikastetxean materiala koordinatu eta prestatzeko.

d) Norbanako Curriculum Egokitzapenaren arabera hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eskola-jantokian lagundu eta zaintzen aritzen den langileei dagokienez (Hezkuntza Laguntzako espezialistak), zerbitzuaren beharretatik eta lanaren antolakuntzarekin bat etorritik, irakasleen bazkalordua eta ikasleak lagundu eta zaintzeko ordua aldi berean suertatzen badira, bazkaltzen erabilitako denbora lanekoa balitz bezala hartuko da. Kasu horietan langileei, beren bazkarirako 45 minutu bermatzen zaizkie, eta ordu osotzat zenbatuko dira.

Aurreko paragrafoan deskribatutako kasuetan, Administrazioak, beharrezko egiaztatzea aurkeztu ondo-

Cuando no estuviere cubierto el periodo de carencia preciso para causar derecho a la prestación correspondiente se podrá seguir en activo hasta causar derecho a la misma.

## TITULO TERCERO JORNADA Y VACACIONES

### CAPITULO I JORNADA DE TRABAJO

#### Artículo 17.— Jornada.

1.— Para el Personal Docente, partiendo del régimen vigente de dedicación reconocido a los docentes de 1.462 horas, la práctica de la jornada semanal, su distribución en horario lectivo o no lectivo -no pudiendo aumentarse el horario lectivo y de permanencia actualmente vigentes-, así como en su caso el complementario, será regulado al comienzo de cada curso escolar.

En este sentido, dicho régimen de jornada, dedicación y permanencia, será idéntico -en cada caso- al establecido para el personal funcionario docente público no universitario.

Quedan exceptuadas de todo lo anterior aquellas personas contratadas por tiempo inferior, quienes de conformidad con la normativa laboral, podrán mantener su actual jornada. En paralelo, siempre que las necesidades de los centros así lo requieran, se dará opción de ampliar su jornada de trabajo hasta la totalidad, a los contratados laborales a tiempo parcial.

#### 2.— Para el Personal Educativo:

a) Se establece una jornada máxima anual de 1.480 horas, cuya realización se adecuará en todo caso al cumplimiento del calendario escolar de cada centro.

b) En consideración a sus especificidades, los/as fisioterapeutas y terapeutas ocupacionales contarán con un régimen de dedicación similar al del personal docente.

c) Los/as Especialistas de Apoyo Educativo dispondrán de un total de 10 horas mensuales para tareas de coordinación y preparación de material en el centro.

d) Para el personal que tiene encomendada la vigilancia, cuidado y atención del comedor escolar de los/as alumnos/as con n.e.e. que precisen estos servicios según su ACI (Especialistas de Apoyo Educativo), cuando por necesidades de servicio y de conformidad con la organización de trabajo se simultanee el descanso para la comida con la vigilancia y ayuda a la comida de los/as alumnos/as, el tiempo destinado a la comida se considerará como laboral. En estos casos se garantizan al/a trabajador/a 45 minutos para comida propia que se computarán como una hora.

En los supuestos descritos en el párrafo anterior, la Administración, previa presentación del justificante

ren, bazkariaren kostua ordainduko du, baldin eta eskolako jantokia erabiltzen bada.

e) Zerbitzuko eginbeharrak direla-eta, Hezkuntza Laguntzako espezialistek ikasleari bere bizilekutik kanpo gaua igarotzea eskatzen dioten jardueretan lagundu behar badiote, orduak gehitzerakoan 8 orduko jardun normalizatuko egun eta erdi hartuko dira. Jaia bada, bi egun hartuko dira. Irizpide bera aplikatuko da laguntza horiek egiten dituen behin-behineko langilea edo bitartekoa bada.

f) Urtero, ikasturtea hasi eta hilabeteko epean, lan egin behar duen ikastetxeko eskola-egutegia eta ordu-tegia emango zaio langileari. Egutegi hori ikasturte osorako izango da, eta egon daitezkeen aldaketak –beti ere kasu berezietan eta behar bezala adierazirik– zerbitzuko premien menpe egongo dira. Azkenik, egutegia Batzorde Parekideak onetsi beharko du.

Hezkuntza Laguntzako espezialistei dagokienez, ikastetxe bat baino gehiagotan jardunez gero –inoiz ez bi baino gehiagotan– eta horien egutegiak desberdinak badira, eguneko lanaldirik luzeena egiten den ikastetxeko egutegia errespetatuko da.

## II. KAPITULUA OPORRAK

### 18. artikulua.– Oporrak.

1.– Irakasleek unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza publikoko irakasle funtzionarioentzat ezarritako opor-sistema berbera izango dute.

2.– Hezitzaileak:

a) Urte oso bakoitzeko, ordaindutako 45 eguneko oporraldia hartzeko eskubidea izango dute. Oporraldi hori abuztuan eta dagozkion uztailleko egunetan hartu beharko da etenik gabe.

b) Bitarteko edo behin-behineko langileak izateagatik, zerbitzu-urtea betetzen ez den kasuetan, urte horretan lan egindako denboraren arabera dagokien oporraldi proportzionala izateko eskubidea izango dute.

c) Oporren orde, ezin izango da dirurik ordaindu, ez osorik ez zati batean, kasu hauetan izan ezik: urtean zehar langilearen lan-harremana bukatzen denean, edo langilea eszedentzian edota bere zereginetatik baztertuta dagoenean, eta oraindik oporraldia edo horren zati bat hartu ez badu.

d) Langileak 30 eguneko oporraldia hartzeko eskubidea izango du, erditzea, gaixotasuna edo istripua gertatzen badira; kasu horietan, interesdunak eta lurralde-ordezkaritzak adostutako egunetan hartuko dira oporrak.

oportuno, abonará el importe del coste del menú cuando se haga uso del servicio de comedor escolar.

e) En el supuesto de que por necesidades de servicio los/as Especialistas de Apoyo Educativo acompañaran al/a alumno/a en actividades que exigieran pernoctar fuera de su domicilio, a efectos de acumulación horaria se computarán a razón de 1,5 días con una jornada normalizada de 8 horas. En el supuesto de coincidencia con una jornada festiva el cómputo se realizará a razón de 2 días. Similar criterio se aplicará para el personal eventual o interino que realizara dichos acompañamientos.

f) Anualmente, en el plazo de un mes desde el comienzo del curso, se facilitará al/a trabajador/a el calendario y horario en que deba prestar servicios. Este calendario será el aplicable durante todo el curso escolar estando sujetas las eventuales modificaciones -siempre con carácter excepcional y debidamente informadas- a necesidades de servicio que surgieran en su transcurso; sometiéndose en última instancia a su aprobación en la Comisión Paritaria.

Para el personal de la categoría Especialista de Apoyo Educativo, en el supuesto de prestarse servicios en más de un centro escolar -en ningún caso más de dos- y que los calendarios escolares de los mismos difirieran, se estará a los del centro en el que desarrolla la mayor parte de su jornada diaria

## CAPITULO II VACACIONES

### Artículo 18.– Vacaciones.

1.– Para el Personal Docente se establece un sistema de vacaciones idéntico al establecido para el personal funcionario docente público no universitario.

2.– Para el Personal Educativo:

a) Se tendrá derecho a disfrutar, por cada año completo de servicio, una vacación retribuida de 45 días naturales, a disfrutar en el mes de Agosto completo y el período correspondiente de Julio sin interrupción.

b) En los casos en que -por tratarse de personal interino o eventual-, no se alcance el año de servicios, se tendrá derecho a la parte proporcional de vacaciones que le correspondiere en virtud del tiempo trabajado durante el mismo.

c) Las vacaciones no podrán ser compensadas ni en todo ni en parte en metálico excepto cuando en el transcurso del año se produzca la extinción de la relación de empleo del/la trabajador/a, o sea declarado éste en la situación de excedencia o de suspensión de funciones y aún no haya disfrutado o completado en su total disfrute el período vacacional.

d) Se tendrá derecho a disfrutar en todo caso de 30 días de vacaciones cuando mediaren circunstancias de maternidad, enfermedad o accidente, disfrutándose las mismas en las fechas acordadas entre el/la interesado/a y la Delegación Territorial.

LAUGARREN TITULUA  
LIZENTZIAK, BAIMENAK, ESZEDENTZIAK ETA  
LAN-TRUKATZEAK

I. KAPITULUA  
LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

**19. artikulua.**– Istripuko edo gaixotasuneko lizentzia

1.– Langileek lizentzia hartzeko eskubidea izango dute, gaixorik daudenean edo istripuren bat izan dutenean, eta, ondorioz, beren jardunak behar bezala egiteko ezgaituta daudenean –beti ere, hori horrela dela egiaztatzeko, mediku-zerbitzuek egindako baja aurkezten badute–, harik eta medikuak alta eman arte. Hala ere, ezin izango da kontratuaren gehieneko iraupena inolaz ere gainditu.

2.– Administrazioak, Enpresako Osasun Zerbitzuak egindako mediku-azterketaren bidez, langilearen gaixotasunaren edota istripuaren jarraipena egin eta haren osasun-egoera egiazta dezake, egoeraren berri jakiteko, behar den laguntza emateko eta langilea lehenbailehen erabat sendatu dadin lortzeko. Langileak horrelako azterketak ez baditu egin nahi, jasotzen dituen laguntza ekonomikoki osagarriak gal ditzake, entzunaldiaren izaipidea idatziz egin ondoren.

3.– Gaixotasuna edo istripua dela-eta lanerako ezintasun iragankorreko egoeran dauden langileek ordain-sarien %100 jasoko dute, gehienez 18 hilabetetan.

se podrá hacer uso de las licencias o permisos retribu-  
idos.

### Artículo 38.– Reincorporación al puesto de trabajo.

Transcurrido el período de disfrute de las licencias  
y permisos correspondientes los/as trabajadores/as de-  
berán reintegrarse inmediatamente a sus respectivos  
puestos de trabajo.

## CAPITULO II EXCEDENCIAS

### Artículo 39.– Excedencias.

La excedencia podrá ser forzosa o voluntaria.

1) La forzosa que dará derecho a la conservación del  
puesto de trabajo y al cómputo de la antigüedad de su  
vigencia, se concederá previa comunicación escrita a la

keta Zuzendaritzari idatziz horren berri eman ondoren:

a) Kargu publikoren bat betetzeko izendatua edo hautatua izateagatik, langilea lanera joan ezin denean.

b) Langileak herrialdean edota lurralde-eremu handiago batean eginkizun sindikalak bete behar baditu, ordezkarri-kargua duen bitartean.

c) Langileak askatasuna galdu duenean —prebentziozko atxilotzea eta behin-behineko espetxeratzea barne hartuta—, zigortzeko epai irmorik jasotzen ez duen bitartean.

Eszedentzia nahitaez hartzen duen langileak gehienez hogeita hamar egutegi-eguneko epea izango du lanera itzultzeko, zegokion zerbitzu, kargu edo zeregina utzi zuenetik zenbatzen hasita.

Eszedentzia-egoera bukatu eta ezarritako epe barruan dagokien lanpostura itzultzen ez badira, behin betiko baja emango zaie.

2.— Urtebeteko antzinatasuna bete duten langileek borondatezko eszedentzia eska dezakete, idatziz; eta, aurreko lau urteetan eszedentziarik hartu ez badute, gutxienez urtebetekoa eta gehienez bost urtekoa izango den eszedentzia emango zaie.

Bestelako mugarik gabe, langileek eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute, hiru urtetik beherako eperako, seme-alaba bakoitza —haur naturala zein umeordea— zaintzeko. Horrelakoetan, epea haurren jaiotegunetik edo ebazpen judizialaren datatik aurrera kontatuko da. Denboraldi horretan, langileak lanpostua gordetzeko eskubidea izango du, eta epe hori ere kontuan hartuko zaio antzinatasunaren ondorioetarako. Ondorengo seme edo alaba bakoitzak beste eszedentzia baterako eskubidea emango du; hala gertatuz gero, une horretan burutzen ari zen eszedentzia bertan bukatuko da. Aitak eta amak, biek lan egiten dutenean, eskubide horretaz ezin izango du bietako batek baino baliatu.

3.— Langileek gehienez urte bateko eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko, senideren bat, adinagatik, istripuren bat izateagatik edo gaitzak jota egoteagatik, ezin bada bere kabuz moldatu eta ordaindutako jarduerarik egiten ez badu.

Denboraldi horretan, langileak lanpostua gordetzeko eskubidea izango du, eta epe hori ere kontuan hartuko zaio antzinatasunaren ondorioetarako. Era berean, prestatuntza-ikastaroetan parte hartzeko eskubidea izango du. Bestalde, beste subjektu batek beste eszedentzia bat hartzeko eskubidea sortzen badu, eszedentziako denboraldi hori hasten denean langileak lehendik zeukan eszedentzia bukatuko da. Kolektiboko bi langilek edo gehiagok eszedentzia hartzeko eskubidea badute eta eskubidea eragiten duena subjektu berbera bada, orduan, batek baino ezingo du eskubidez baliatu.

Dirección de Gestión de Personal del Departamento, en los siguientes supuestos:

a) Por designación o elección para un cargo público que imposibilite la asistencia al trabajo.

b) Por el ejercicio de funciones sindicales de ámbito provincial o superior, mientras dure el ejercicio de su cargo representativo

c) Por privación de libertad del/la trabajador/a, mientras no exista sentencia condenatoria firme, incluidas tanto la detención preventiva, como la prisión provisional.

El/la trabajador/a con excedencia forzosa, deberá reincorporarse en el plazo máximo de treinta días naturales a partir del cese en el servicio, cargo o función que motivó su excedencia.

Si al cesar en tal situación, no se reintegran a su puesto de trabajo en los plazos establecidos, causarán baja definitivamente.

2.— La excedencia voluntaria, podrá ser solicitada, por escrito, por los/as trabajadores/as con un año al menos de antigüedad y se concederá por un mínimo de un año y un máximo de cinco y siempre y cuando no haya disfrutado de excedencia durante los cuatro años anteriores.

Sin otras limitaciones, los/as trabajadores/as tendrán derecho a un período de excedencia no superior a tres años, para atender al cuidado de cada hijo/a -tanto cuando sea por naturaleza como por adopción como por acogimiento preadoptivo o permanente-, a contar desde la fecha de nacimiento de éste/ésta o de la resolución judicial. Durante este tiempo el/la trabajador/a tendrá derecho a la reserva de su puesto de trabajo y a que el citado periodo sea computado a efectos de antigüedad. Los sucesivos hijos/as darán derecho a un nuevo período de excedencia que, en su caso, pondrá fin al que se venía disfrutando. Cuando el padre y la madre trabajen, sólo uno de ellos podrá ejercitar este derecho.

3.— Los/as trabajadores/as tendrán derecho a un período de excedencia no superior a un año, para atender al cuidado de un familiar, hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad, que por razones de edad, accidente o enfermedad no pueda valerse por sí mismo, y no desempeñe actividad retribuida.

Durante este tiempo el/la trabajador/a tendrá derecho a la reserva de su puesto de trabajo y a que el citado periodo sea computado a efectos de antigüedad. También se tendrá derecho a la asistencia a cursos de formación. Cuando un nuevo sujeto causante diera derecho a un nuevo período de excedencia, el inicio de la misma dará fin a la que se viniera disfrutando. Si dos o más trabajadores del colectivo generasen este derecho por el mismo sujeto causante, sólo uno de ellos podrá ejercitar el mismo.

4.– Eszedentzia irailean hasiko da, besterik adosten ez bada. Seme/alaba txikia zaintzeko ere, amatasun-licentzia bukatu eta berehala hasiko da.

Borondatezko eszedentzia hartu duen langileak berriaz lanera itzultzeko eskatzen duenean, bere kategorian hutsik geratzen den lehen lanpostua betetzeko eskubidea izango du, edo, bestela, hutsen bat gelditu arte itzaroteko.

**40. artikulua.**– Askatasuna galdu izanagatik lan-harremana etenda uztea.

Askatasuna galdu izanagatik lan-harremana etenda duen langileak bere lanpostua gordeta edukitzeko eskubidea izango du epai kondenatzailea jasotzen ez duen bitartean. Egoera horretan dagoen bitartean, dagozkion ordainsariak jasoko ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera.

### III. KAPITULUA LAN-TRUKATZEAK

**41. artikulua.**– Lan-trukatzeak

1.– Hezkuntza Sailak jardunean dauden langile finen artean lantokiak aldatzeko baimena eman dezake salbuespen gisa, eta beti ere honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Langileon lanpostuak lan-kategoria berekoak badira eta hitzarmen honen eraginpean badaude.

b) Lana trukatu nahi duten langileek hainbat urte badaramatzate lanean, eta lanean daramatzaten urteen artean dagoen aldea bost urtetik gorakoa ez bada.

c) Aurretik ikastetxe bakoitzeko zuzendariak eta Hezkuntza Ikuskaritzakoak horren aldeko txostena aurkeztu badute.

2.– Ezin izango da lan-trukatzerik baimendu, langileetako bati hamar urte baino gutxiago falta bazaio nahitaezko erretiroko adina betetzeko.

3.– Langileei lana trukatzeko baimena eman eta hamar urteren barruan, ezin izango zaie berriro lan-trukatzerik baimendu. Batzorde Parekideari dagokio kasu bereziak zehaztea; horietan, bidezkoa izango da epea lau urtera jaistea.

4.– Batzorde Parekideari eskatu diren lan-trukatzeen berri emango zaio, eta Sailak trukatzeko horiek eman edo ukatu dituen jakinaraziko zaio.

### BOSGARREN TITULUA ORDAINSARIAK

**42. artikulua.**– Soldata.

1.– Talde honetako langileek 2003. urtean izango dituzten ordainsariak hitzarmen kolektibo honetako I. eranskinean ezarritakoaren arabera finkatu dira.

4.– La excedencia empezará a disfrutarse en el mes de septiembre, salvo acuerdo en contrario, o en el caso de excedencia por cuidado de hijo/a menor que se iniciará inmediatamente después de finalizar la licencia de maternidad.

El/la trabajador/a excedente voluntario/a que solicite su reincorporación, tendrá derecho a ocupar la primera vacante que se produzca en su categoría y si no existiera esperar a que se produzca aquélla.

**Artículo 40.**– Situación de suspensión de la relación de servicio por motivo de privación de libertad

El/la trabajador/a cuya relación de servicio se encuentre suspendida por motivo de privación de libertad, tendrá derecho a la reserva de su puesto de trabajo en tanto no recaiga sentencia condenatoria, percibiendo las retribuciones a las que tuviera derecho, en aplicación de la legislación vigente.

### CAPITULO III PERMUTAS

**Artículo 41.**– Permutas.

1.– El Departamento de Educación podrá autorizar, excepcionalmente, permutas de destinos entre trabajadores/as fijos/as en activo, cuando concurren las siguientes circunstancias:

a) Que los puestos de trabajo en que presten sus servicios sean de la misma categoría profesional y estén afectados por el presente Convenio.

b) Que quienes pretenden la permuta cuenten respectivamente con un número de años de servicio que no difiera entre sí más de cinco.

c) Que se emita informe previo favorable del/a Director/a de cada centro y del/la Inspección de Educación.

2.– No podrá autorizarse permuta entre trabajadores/as cuando a alguno/a de ellos/as le falten menos de diez años para cumplir la edad de jubilación forzosa.

3.– En el plazo de diez años, a partir de la concesión de una permuta no podrá autorizarse otra a cualquiera de los interesados/as. Corresponde a la Comisión Paritaria determinar aquellos casos especiales en los que proceda rebajar este plazo a 4 años.

4.– La Comisión Paritaria será informada de las permutas solicitadas y de su concesión o denegación por el Departamento.

### TITULO QUINTO RETRIBUCIONES

**Artículo 42.**– Salario.

1.– Los valores salariales correspondientes al año 2003 para el personal de este colectivo quedan fijados conforme a lo establecido en el Anexo I del presente Convenio Colectivo.

I. Eranskinak beren kategoriarako aurreikusten duen ordainsaria gainditzen duten langileek kopuru bera jasotzen jarraituko dute, irensgarria izango den osagarri pertsonal iragankorrari esker. 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera ezarriko diren irensteko prozedura eta igoera linealak gai honen inguruan Negoziazio Mahaiak hartutako erabakiko baldintzei jarraiki aplikatuko dira (baldintza horiek Hitzarmen Kolektibo honen akordio-aktarekin batera onetsi dira).

2.- Lanaldi partzialeko lan-kontratuko langileen ordainsaria kategoría berean lanaldi osoko kontratua duten langileen ordainsariaren araberakoa izango da.

3.- Ordainsariak hilak bete ahala ordainduko dira, hilabete bakoitzaren azken egunetan, langilearen kontu-korrontean edo aurrezki-libretan sartuz.

4.- Zuzendaritzako eta erantzukizun handiko karguak hitzarmen honen eraginpeko langileek betetzen dituztenean eta kargu horiek ez direnean langilearen lanbide-kategoría berekoak, kargu horiek betetzeko osagarriak irakasle funtzionarioen arloari dagozkion berberak izango dira.

#### **43. artikulua.**– Antzinasuna.

1.- Talde honetako langileek 2003. urtean izango dituzten antzinasuneko osagarriak hitzarmen kolektibo honetako I. eranskinean ezarritakoaren arabera finkatu dira.

2.- Sortutako hirurtekoek I. Eranskinean adierazitako balioa gainditzen badute ere, mantendu egingo dira osagarri pertsonal iragankorraren bitartez.

3.- Langilea enpresan sartzen den eguna izango da antzinasuna zenbatzeko hartuko den hasierako eguna, eta antzinasunerako kontuan hartzekoak ez diren epealdiak hortik kenduko dira. Hirurteko bakoitzaren zenbatekoa mugaeguneratu eta hurrengo hileko lehengo egunetik aurrera hasiko da ordaintzen.

4.- Behin-behineko langileei lanean hiru urte osatu ondoren ordainduko zaie antzinasuna. Lan-kontratu mugagabea duten langileei edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak aitortuko zaizkie, langileak eskaera egin eta emandako zerbitzuak egiaztazen dituen agiria aurkeztu ondoren.

#### **44. artikulua.**– Aparteko ordainsariak.

Hitzarmen honen eraginpean dauden langileek 2005. urtetik aurrera aparteko bi haborokin jasoko dituzte; haborokin bakoitzak hilabete arrunt bateko soldataren zenbatekoa gehi antzinasuna izango du, eta ekainean eta abenduan ordainduko dira. Urtearen barruan lanean hasten diren edo lanari uzten dioten lan-

El personal que cuenta con valores salariales superiores a los previstos para su categoría en el Anexo I, mantendrá dichas retribuciones a través de un complemento personal transitorio que tendrá carácter absorbible. El procedimiento de absorción y las subidas lineales a establecer a partir del 1 de enero de 2004 se atenderán a los términos del acuerdo que sobre esta materia ha alcanzado esta Mesa Negociadora y que se suscriben conjuntamente con el acta de acuerdo de este Convenio Colectivo.

2.- El personal con contratos a tiempo parcial percibirá sus retribuciones de forma siempre proporcional a la del personal con jornada completa de la misma categoría.

3.- El abono de las retribuciones se efectuará por meses vencidos, en los últimos días del mes correspondiente, y se hará efectivo, por abono en cuenta corriente o libreta de ahorro del/a trabajador/a.

4.- En aquellos supuestos en que los cargos directivos y de responsabilidad sean desempeñados por el personal afectado por este Convenio y siempre que la naturaleza de dichos cargos no se corresponda con la categoría profesional del/a trabajador/a, los complementos por el desempeño de dichos cargos serán los mismos que los correspondientes al sector de funcionarios docentes.

#### **Artículo 43.**– Antigüedad.

1.- La valores del complemento de antigüedad correspondientes al año 2003 para el personal de este colectivo quedan fijados conforme a lo establecido en el Anexo I del presente Convenio Colectivo.

2.- El valor de los trienios que se hubieren devengado en cuantía superior a la reflejada en el Anexo I, se mantendrán a través de un complemento personal transitorio.

3.- La fecha inicial del cómputo de antigüedad, será la del ingreso del/la trabajador/a en la empresa, descontándose los periodos de tiempo en que no tiene derecho a cómputo de antigüedad. El importe de cada trienio comenzará a devengarse a partir del día primero del mes siguiente al de su vencimiento.

4.- Se procederá al abono de la antigüedad al personal eventual cuando completare 3 años efectivos de servicios. Al personal laboral de carácter indefinido se le reconocerán los servicios previos prestados en cualquier Administración Pública, previa petición a instancia de parte con aportación fehaciente del documento correspondiente.

#### **Artículo 44.**– Pagas extraordinarias

Los/as trabajadores/as comprendidos/as en el ámbito de aplicación del presente Convenio percibirán a partir del año 2005 dos gratificaciones extraordinarias, equivalentes cada una, a una mensualidad ordinaria y la antigüedad, que se harán efectivas en los meses de junio y diciembre. Al personal que cese o ingrese en el

gileei aparteko ordainsariak ordaintzeko, langileak lan egindako denbora aintzat hartuta hainbanatuko da zenbatekoa.

SEIGARREN TITULUA  
LAN-BALDINTZAK HOBETZEA

I. KAPITULUA.

AURRERAKINAK. NOMINA-AURRERAPENAK.  
BIZI, ISTRIPU ETA ERANTZUKIZUN ZIBILEKO  
ASEGURUA

**45. artikulua.**– Aurrerakinak.

Jardunean dauden langileek, indarrean dauden aurrekontuetako diru-izendapenen barruan, beren hileko soldata garbiaren %100erainoko aurrerakinak, korriturik gabe, jasotzeko eskubidea izango dute, beren kontratu-harremana hilaren azkena baino lehenago bukatzen ez bada. Aurrerakin hori eskatu deneko hileko soldatan eman beharko da.

Orobat, hilerio edonolako atxikipenik egiten zaienek hileko soldata garbiaren %100eko aurrerakina jaso ahal izango dute, aipatutako atxikipena kenduta.

**46. artikulua.**– Nomina-aurrerapenak.

Lan-legepeko langile finkoek nomina aurreratzeko eskubidea izango dute, hitzarmena sinatzen denetik aurrera, jarraian azaltzen diren arauen arabera.

Oraindik egiteke dagoen lan bati dagozkion ordainketen kargura ematen diren diru-zenbatekoak ordaintzea jotzen da nomina-aurrerapentzat.

1.– Nomina-aurrerapena 4.207 eurokoa izan daiteke gehienez. Nomina-aurrerapena emateko, bosgarren idatz-zatian presazko behartzat jotako inguruabarretako bat gertatu behar da. Halere, idatz-zati horretan jasotako e), f), g) h) i), j), k) eta l) kasuetan, gastuen frogagiritan agertzen den kopuruak zehaztuko du zenbat den eman beharreko zenbatekoa aipatutako gehienezko zenbatekoen mugen barruan. Agiriok, eskaerarekin batera, eskatzaileak aurkeztu beharko ditu, premia larria egiaztatzeko.

2.– Itzultzeko gehienezko epea hogeita lau hilabetekoa izango da. Aurrerapenengatik ez da inolako korriturik ordainduko, eta emandako gehienezko epea bete baino lehenago itzuli ahal izango dira.

3.– Ezin da nomina-aurrerapenik eman lehendik emandako aurrerapenak zeharo likidatu arte. Halaber, gutxienez sei hilabete igaro behar dira nomina-aurrerapen bat kitatzen denetik beste bat eskatu arte. Hala ere, aurrerapenaren kausa f) idatz-zatian ageri dena bada, aurrerapen bakarra baliatu ahal izango da hamar urteko epealdian. Ibilgailua eskuratzeko aurrerapenaren

Centro en el transcurso del año se le abonarán las pagas extraordinarias, prorrateándose su importe en proporción al tiempo de servicios en ese año.

TITULO SEXTO  
MEJORA DE CONDICIONES DE TRABAJO

CAPITULO I  
ANTICIPOS. ADELANTOS DE NOMINA.  
SEGURO DE VIDA, ACCIDENTE Y  
RESPONSABILIDAD CIVIL

**Artículo 45.**– Anticipos.

Los trabajadores y trabajadoras en activo y dentro de las consignaciones presupuestarias existentes, tendrán derecho a la concesión de anticipos ordinarios sin interés alguno, de hasta el 100% de su salario líquido mensual, siempre y cuando no se prevea la finalización de la relación contractual antes de fin de mes. Dicho anticipo deberá ser compensado en la nómina correspondiente al mes solicitado.

Asimismo, para aquellas personas a las que se les practique cualquier tipo de retención mensual, la cuantía máxima del anticipo mensual será igual al 100% del salario líquido mensual menos la retención anteriormente señalada.

**Artículo 46.**– Adelantos de Nómina.

El personal laboral fijo incluido en el ámbito de este Convenio, tendrá derecho, a partir de la firma del mismo, a un adelanto de nómina de conformidad con la normativa que a continuación se expone:

Se considera adelanto de nómina el que se refiere al abono de cantidades a cargo de retribuciones correspondientes a un trabajo no efectuado.

1.– El importe máximo de los adelantos de nómina a conceder será de 4.207 euros. Para ello será necesario que concurra alguna de las circunstancias calificadas como necesidad urgente en el apartado quinto. No obstante, en los supuestos e), f), g), h), i), j), k), y l) previstos en el citado apartado, el importe a conceder vendrá determinado, dentro del límite máximo señalado, por la cuantía que figure en los justificantes de gastos que, como documentos acreditativos de la necesidad urgente, deberá adjuntar a su solicitud la persona petionaria.

2.– El plazo máximo de reintegro será de veinticuatro mensualidades. Estos adelantos no devengarán interés alguno, y podrán ser reintegrados en plazo inferior al señalado como máximo.

3.– No podrá concederse ningún nuevo adelanto de nómina mientras no se tuvieran liquidados los compromisos de igual índole adquiridos con anterioridad. Asimismo, deberá transcurrir un período mínimo de seis meses entre la cancelación de un adelanto de nómina y la solicitud de concesión de otro. No obstante, las causas contempladas en el apartado f) otorgarán derecho a

kasuari dagokionez, ezin izango da nomina-aurrerape-  
nik eman aurreko aurrerapena eman zenetik bost urte  
igaro arte.

Nomina-aurrerapena jasotzen dutenen administra-  
zio-egoera nola edo hala aldatzen bada, eta, hortaz, no-  
minan baja eman behar bazaie sei hilabete baino epeal-  
di luzeagoz, aurrez osorik itzuli beharko dute emanda-  
ko nomina-aurrerapena.

4.– Indarrean dauden kredituen gehieneko kopuru  
erabilgarria soldata-kostuen %2ren parekoa izango da.

5.– Premia larriak.– Egoera hauetatik sortutakoak  
hartuko dira premia larritzat:

a) Eskatzailea ezkontzea edo bikoteko bizikidetz  
egonkorrean hastea –hori ziurtagiriaren bidez behar be-  
zala egiaztatu beharko du–.

b) Eskatzailea dibortziaztea, banatzea edo ezkontza  
baliogabetzea.

c) Ezkontidearen edo seme-alaben heriotza.

d) Seme-alabak jaiotzea, edo haurrak adoptatzea edo  
ta hartzea.

e) Eskatzailearen edo ezkontidearen, bikotekidearen,  
seme-alaben edota hartutako haurren gaixotasun edo  
ebaketa kirurgiko larria.

f) Ohiko bizilekua erostea eta ohiko bizilekua eros-  
teko hartutako bankuko kredituak amortizatzea. Baliz-  
ko honetan, aurrerapena 9.015 eurokoa izan daiteke, eta  
eskatzaileak gehienez ere 48 hiletan itzuli beharko du.

g) Ohiko bizilekua zaintzeko beharrezko eta ezinbes-  
teko obrak egitea.

h) Lantokia dagoen herrira bizitzera joatea.

i) Ohiko bizilekuko altzariak erostea.

j) Eskatzaileak zentro ofizialetan egindako ikasketen  
matrikulako gastuak.

k) Ibilgailua erostea. Ibilgailua lanean erabiltzeko  
erosten bada, eta dagokion lurralde-ordezkaritzak au-  
rrez egiaztatzen badu, maileguaren zenbatekoa 5.409  
eurorainokoa izan daiteke eta eskatzaileak gehienez ere  
36 hiletan itzuli beharko du.

l) Antzekoak diren beste inguruabar batzuk, horre-  
la kalifikatzeko modukoak baldin badira.

Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak ukatu di-  
tuen eskaerak aldi berean behin jakinaraziko zaizkio Batzor-  
de Parekideari.

6.– Izapideak.– Nomina-aurrerapenerako eskaerak  
aurkezteko gehienezko epea bi hilabetekoa izango da,  
eskaera eragin duen gertakizunaren egunetik hasita.

la concesión de un solo adelanto durante un período de  
diez años. Respecto al supuesto relativo a adquisición  
de vehículo no cabrá conceder nuevo adelanto por igual  
motivo hasta tanto transcurran 5 años desde la conce-  
sión del anterior.

Cualquier cambio en la situación administrativa de  
los beneficiarios y beneficiarias de los adelantos de nó-  
mina que motive la baja en nómina por un período su-  
perior a seis meses, requerirá el previo reintegro en su  
totalidad del adelanto de nómina concedido

4.– El saldo máximo de créditos vivos será el equi-  
valente al 2% de la masa salarial.

5.– Necesidades urgentes.– Tendrán dicha conside-  
ración las derivadas de:

a) Matrimonio de la persona solicitante, o inicio de  
convivencia estable en pareja acreditada mediante cer-  
tificado.

b) Divorcio, separación ó nulidad del matrimonio de  
la persona solicitante.

c) Fallecimiento del cónyuge, hijos o hijas.

d) Nacimiento de hijos o hijas, o supuestos de adop-  
ción y acogimiento.

e) Enfermedad o intervención quirúrgica grave del  
o de la solicitante, o de su cónyuge, compañero o com-  
pañera, hijos o hijas, o de menores que tuviera en aco-  
gimiento.

f) Adquisición de vivienda habitual, y amortización  
de créditos bancarios, con ocasión de adquisición de vi-  
vienda habitual. En este supuesto el importe del ade-  
lanto podrá ascender hasta 9.015 euros siendo el plazo  
máximo de reintegro de 48 mensualidades.

g) Realización de obras necesarias e imprescindibles  
para la conservación de la vivienda habitual.

h) Traslado de domicilio a la localidad donde se en-  
cuentre ubicado el centro de trabajo.

i) Adquisición de mobiliario para vivienda habitual.

j) Gastos de matrícula derivados de estudios en cen-  
tros oficiales, por parte de la persona solicitante.

k) Adquisición de vehículo. En el supuesto de que  
la adquisición de vehículo sea por motivo de su utili-  
zación como herramienta de trabajo, previamente jus-  
tificado por la Delegación Territorial correspondiente,  
el importe del préstamo podrá ascender hasta 5.409 eu-  
ros siendo el plazo máximo de reintegro de 36 mensua-  
lidades.

l) Otras circunstancias de análoga naturaleza que me-  
rezcan dicha calificación.

Las solicitudes denegadas por la Dirección de Ges-  
tión de Personal serán puestas en conocimiento de la  
Comisión Paritaria periódicamente.

6.– Tramitación.– El plazo máximo para la presen-  
tación de solicitudes de adelantos de nómina será de dos  
meses a partir de la fecha del hecho causante. No obs-



Hala ere, salbuespenezko kasuetan, gertakizunaren egunaren aurreko hilean datatutako eskaerak ere onartu ahal izango dira, eskatzaileak agintzen badu, nominaren aurrerapena ematen den egunetik hasita bi hilabeteke epean, dagozkion egiaztagiriak aurkeztuko dituela –behar bezala egiaztatutako kasuetan izan ezik–. Agindu hori ez betetzeak besterik gabe baliogabetuko du aurrerapena.

Nomina-aurrerapenerako eskaerak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzara igorri beharko dira, lurralde-ordezkaritzaren bidez. Lurralde-ordezkaritzak, bestalde, aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, eskaeraren harrera-data jaso eta haren etorkiari buruzko aurreitiazko txostena egin beharko du.

**47. artikulua.**– Bizi, istripu eta erantzukizun zibileko aseguruak.

1.– Administrazioak, hitzarmen hau sinatu ondoren, istripuko aseguruaren polizak gaurkotuko ditu ondorengo kopuruen arabera:

Heriotza:	18.030 euro
Erabateko baliaezintasun iraunkorra:	18.030 euro
Gutzizko baliaezintasun iraunkorra:	18.030 euro
Partezko baliaezintasun iraunkorra:	18.030 euro

raino, baremoaren arabera

2.– Akordio hau sinatzen denetik hiru hilabeteke epean, Administrazioak bizitza-aseguruaren eta erabateko baliaezintasun iraunkorreko aseguruaren poliza eguneratuko ditu 18.030 euroko estalduraraino.

3.– Hitzarmen honen eremuan sartzen diren langileek erantzukizun zibileko polizaren estaldura dute. Administrazio autonomo honek egin du poliza hori, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, erakunde autonomoen, ordezkarien, langileen eta mende-koen alde, bere egitekoak betetzen edo bere lanbide-jarduna egiten ari dela.

Poliza horren estaldurak 6.010.000 euroko muga du hirugarren batzuentzako kalteei dagokienez, eta, 1.202.000 euroko azpimuga, egindako kalteak Administrazioeko langileen lanbide-erantzukizunen ondorioa badira.

4.– Azterlan bat egingo da lehen deskribatutako polizen hedadura berrikusteko.

5.– Administrazioak subsidiarioki bere gain hartzen du bere zereginak garatzearen ondorioz eskolaz kanpoko jardueretan edo jarduera osagarrietan egin behar duen irakaskuntzako lana dela-eta irakasleek izan dezaketan erantzukizun zibila.

tante, en supuestos excepcionales, podrán ser aceptadas solicitudes fechadas durante el mes anterior a la fecha del hecho causante si van acompañadas del compromiso de presentar la acreditación documental correspondiente en el plazo de dos meses contados a partir de la concesión del adelanto de nómina salvo supuestos debidamente justificados. El incumplimiento de dicho compromiso acarrearía la cancelación inmediata del adelanto.

Las solicitudes de adelantos de nómina deberán dirigirse a la Dirección de Gestión de Personal del departamento de Educación, Universidades e Investigación, a través de la correspondiente Delegación Territorial, la cual a efectos de dar cumplimiento a lo dispuesto en el párrafo anterior deberá hacer constar en las mismas la fecha de recepción, debiendo emitir asimismo informe previo sobre su procedencia.

**Artículo 47.**– Seguro de vida, accidente y responsabilidad civil.

1.– La Administración actualizará a la firma del presente convenio, las coberturas de la póliza de accidentes conforme a los siguientes capitales:

Muerte:	18.030 euros
Invalidez Permanente Absoluta:	18.030 euros
Invalidez Permanente Total:	18.030 euros
Invalidez Permanente Parcial:	hasta 18.030 euros

según baremo

2.– La Administración actualizará, en el plazo de tres meses a partir de la firma del presente Acuerdo, la póliza de seguro de vida y de Invalidez Permanente Absoluta en vigor hasta una cobertura de 18.030 euros.

3.– El personal incluido en el ámbito del presente convenio se encuentra cubierto por la póliza de responsabilidad civil suscrita por esta Administración Autónoma en favor de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sus Organismos Autónomas, sus representantes, trabajador/as y dependientes en el ejercicio de sus funciones o de su actividad profesional.

La cobertura de esta póliza está limitada a 6.010.000 euros por los daños causados a terceros, con un sublímite de 1.202.000 euros cuando los daños producidos sean consecuencia de una responsabilidad profesional de trabajador/as de la Administración.

4.– Se realizará un estudio para revisar la extensión de las pólizas anteriormente descritas.

5.– La Administración asume subsidiariamente la responsabilidad civil del personal incluido en este Convenio derivada del ejercicio de su tarea docente y/o educativa en actividades extraescolares o complementarias derivada del ejercicio de sus funciones.

## II. KAPITULUA GIZARTE LAGUNTZAK

**48. artikulua.**— Borondatezko erretiroaren kalte-ordainak.

1.— Borondatezko erretiroa hartzen duten irakasle finkoei, LOGSEk (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak) Bederatzigarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoari jarraiki, aparteko haborokin gisa egokituko litzaiekeen zenbatekoa emango die Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketak Sailak. Borondatezko erretiroaren sariak erretiroko pentsioa osatuko du, langileak 65 urtera arte jardunean egonda jasoko lituzkeen ordainsari garbien %99raino.

2.— Alabaina, LOGSEk Bederatzigarren Xedapen Iragankorrean ezarritako araubidean sartu nahi ez dutenek eta hezitzaileek borondatezko erretiroaren saria jaso dezakete, baldin eta honakoak betetzen badira: a) Erretiro horretarako eskaera borondatezko erretiroa hartzeko eguna baino gutxienez hilabete lehenago egiten badu, eta, b) Dena delako kasuan eska daitekeen aurretiatzko izapideari emandako erantzunaren berri jaso ondorengo hilabetean baliatzen bada eskubide horretaz.

Edonola ere, borondatezko erretirorako adina betetzen den egunetik aurrerakoak izango dira ondorio ekonomikoak.

Hilerokoen kopurua zehazteko, gorago aipatu diren baldintzetakoren bat betetzen ez duten langileei nahitaezko erretirorako urtebete gutxiago falta zaiela joko da, dena delako kasuan eska dakiekeen aurretiatzko izapidea egin beharra izanagatik ere, adin hori betetzen duten egunean erretiratu ahal dutenean izan ezik.

Sariaren zenbatekoa honako eskala honen arabera kalkulatu da, ordainketa gordin osoei buruzko erreferentzia eginez, beti ere:

Adina	Hilerokoen kopurua
60 urte	18 "
61 urte	14 "
62 urte	10 "
63 urte	6 "
64 urte	3 "

Kalte-ordainaren hileroko zenbateko bakoitza interesdunari borondatezko erretiroa hartzen duenean ematen zaion urteko ordainsari gordinaren hamabirena izango da.

Eskatzaileak dagokion kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izan nahi badu, zerbitzuak ematen jardun behar izan du azken hamar urteetan.

Interesdunak bere erretiroa eta erretiroaren ondorioerarako data jasotzen dituen GSINen ebazpena aurkeztu ondoren ordainduko da ezarritako kalte-ordaina. Ha-

## CAPITULO II ATENCIÓNES SOCIALES

**Artículo 48.**— Indemnizaciones por jubilación voluntaria.

1.— El personal docente fijo que se acogiera a la jubilación voluntaria, por analogía a lo previsto en la Disposición Transitoria Novena de la L.O.G.S.E, percibirá del Departamento de Educación, Universidades e Investigación la cuantía que le hubiere correspondido como gratificación extraordinaria de acuerdo con la referida disposición. La prima de jubilación voluntaria complementará la pensión de jubilación hasta llegar al 99% de las retribuciones netas que se percibirían de estar en servicio activo hasta los 65 años.

2.— No obstante, quienes no deseen acogerse al régimen de la Disposición Transitoria Novena de la L.O.G.S.E. y el personal educativo tendrá derecho a una prima de jubilación voluntaria, siempre que: a) la petición de dicha jubilación se realice con al menos un mes de antelación a la fecha de cumplimiento de edad prevista para la jubilación voluntaria, y b) se ejerza ese derecho en el plazo de un mes a partir de conocerse la contestación del trámite previo que en su caso sea exigible.

En todo caso, los efectos económicos surtirán siempre sobre la fecha de cumplimiento de la edad de jubilación voluntaria.

A los efectos de determinar el número de mensualidades, se considerará que a los/as trabajadores/as que no cumplan alguna de las condiciones arriba indicadas, les falta un año menos para su jubilación forzosa, a menos que a pesar del trámite previo que en su caso sea exigible, puede jubilarse en la fecha de cumplimiento de edad.

La cuantía de la prima se calculará con arreglo a la siguiente escala, siempre con referencia a retribuciones íntegras brutas:

Edad	N.º mensualidades
60 años	18 "
61 años	14 "
62 años	10 "
63 años	6 "
64 años	3 "

Cada una de las mensualidades integrantes de la indemnización será el equivalente a la doceava parte de la retribución bruta anual asignada a la persona interesada en que se produzca su jubilación voluntaria.

Para tener derecho a la indemnización correspondiente es necesario que la persona solicitante haya prestado servicios en los últimos diez años.

La indemnización establecida se hará efectiva previa presentación por parte de la persona interesada de la Resolución del INSS donde se declara su jubilación y la

laber, Ebazpenarekin batera, interesdunak baliaezintasuneko espedientea hasi ez zaiola egiaztatzen duen GSI-Nen ziurtagiria ere aurkeztu behar du.

**49. artikulua.**– Laneko arropak.

Hitzarmen honen eraginpean dauden hezitzaileek 72 euro jasoko dituzte urtean kontzeptu honetarako. Kopuru hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako moduan igorriko dira.

**50. artikulua.**– Joan-etorriek eragindako kalte-ordaina.

1.– Joan-etorriak lanagatik egiten direnean, Sailak bertako irakasleentzako ezarri zituen bidaiengatik ordainketei buruzko araudi orokorrean jasotako irizpideen araber ordainduko zaizkie (kategoria edozein dela ere, hau da, irakaslea edo hezitzailea).

2.– Goizez ikastetxe batean eta arratsaldean beste batean lan egitea izan ezik, ikastetxe batean baino gehiagotan ari diren langileei benetako lanalditzat hartuko zaie kontuan lanaren eraginez sortutako joan-etorria.

3.– Hitzarmen honen eraginpeko langileek ikastetxe bat baino gehiagoren arteko joan-etorriak zentzuzko eran eta eraginkortasunez egiteko formulak aztertuko dira Batzorde Parekidean.

**51. artikulua.**– Ordu-murrizketak.

1.– 60 urtetik gorako langileentzat ordu-murrizketak ezarriko dira. Batzorde Parekideak baldintza hori aplikatzeko formulak ezarriko ditu. Sektore horretako ezaugarri bereziak alde batera utzita, unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionario publikoen sektorean irudi horretarako erabiltzen direnen antzekoak izango dira. Neurri hori 55 urtetik gorakoentzat zabal daiteke apurka-apurka, betiere langile kopurua kontuan hartuta.

**52. artikulua.**– Norberaren baliabideak erabiltzeak eragindako konpentsazioa.

Batzorde Parekideak bide ezberdinak aztertuko ditu (kalte-ordainarena edota aseguruarena) lanean euren jabetzakoak diren baliabideak erabiltzen dituzten kontserbatorioetako irakasleak konpentsatzeko.

III. KAPITULUA  
ENPLEGUA BANATZEKO NEURRIAK

**53. artikulua.**– Lanaldiaren borondatezko murrizketa.

Langileak lanegunaren herena edo erdia gutxitzeko eskatu ahal du, baina lansariak ere hein berean murriztuko zaizkio, hirurtekoak barne hartuta.

fecha de efectos. Asimismo habrá de presentarse junto con ésta, certificación del INSS en la que se acredite que el interesado no se halla incurso en expediente de invalidez.

**Artículo 49.**– Ropa de trabajo.

El personal educativo afectados por este Convenio dispondrán de una dotación de 72 euros anuales por este concepto. Los libramientos se efectuarán en la forma determinada por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

**Artículo 50.**– Indemnización por desplazamiento

1.– Cuando se realicen desplazamientos por razón del servicios, los gastos ocasionados serán indemnizados - con independencia de la categoría de que se trate (docente o educativo)- conforme a los criterios establecidos en la normativa general sobre indemnizaciones por itinerancias que el Departamento fijo para el personal docente dependiente del mismo.

2.– Salvo en el supuesto de cambio de centro entre la jornada de la mañana y la de la tarde, para el personal que presta servicios en más de un centro, el desplazamiento originado con ocasión de su trabajo se computará como jornada efectiva.

3.– En el marco de la Comisión Paritaria se procederá al estudio de fórmulas que permitan que el desarrollo de la itinerancia entre distintos centros por parte del personal afectado por este Convenio, se lleve a cabo de un modo más racional y efectivo.

**Artículo 51.**– Reducciones horarias.

1.– Se dispondrán reducciones horarias para los/as trabajadores/as mayores de 60 años. La Comisión Paritaria establecerá las fórmulas de aplicación de esta condición que, salvando las especificidades propias de este sector, serán similares a los utilizados para dicha figura en el sector de funcionarios docentes públicos no universitarios. Tal medida podría extenderse paulatinamente a los mayores de 55 años, en función de las disponibilidades de personal.

**Artículo 52.**– Compensación por utilización de instrumentos propios.

La Comisión Paritaria estudiará las posibles fórmulas de compensación (indemnización y/o aseguramiento) para los docentes de los conservatorios que en su labor docente utilicen instrumentos de su propiedad.

CAPITULO III  
MEDIDAS TENDENTES AL REPARTO DEL EMPLEO

**Artículo 53.**– Reducción voluntaria de jornada.

Se podrá solicitar la reducción de jornada en la mitad o en un tercio de su jornada laboral, con la reducción proporcional de todas sus retribuciones incluidos trienios.

Lanaldia murrizten bada, egoera hori eta beste edozein lan-jarduera burutzea, bai ordainduta zein ordaindu gabe, bateraezinak dira, gutxitu den ordutegiaren barruan bada. Eskaera urtebeterako izango da gutxienez. Baimena eten ondoren, hiru urte igaro beharko dira berriz ere eskatu ahal izateko. Jarduneko zerbitzuan hasita, edo horretara itzulita, bi urte igaro beharko du te baimena eskatzeko.

**54. artikulua.**— Eszedentzia berezia.

Enpresan gutxienez bost urteko antzinatasuna duen langileari borondatezko eszedentzia berezia onartuko zaio, eta lan egiten duen ikastetxe berean lanpostua gordeko zaio, gutxienez sei hilabeteko eta gehienez urtebetekoa izango den denboraldian (irakasleen kasuan, sei hilabeteko denboraldiak abuztutik urtarrilera bitartekoa edo otsailetik uztailera bitartekoa izan beharko du). Eskubide hori ezin izango du langile berak gauzatu harik eta aurreko eszedentziatik bost urte igaro arte irakasleen kasuan eta bi urte igaro arte, berriz, hezitzaileen kasuan.

**55. artikulua.**— Irakaslanaren arautzea, irakaskuntza araututik kanpo.

Lanbide-heziketako irakasleek ez dituzte kobratuko irakaskuntza ez-arautuan ematen dituzten eskolak, eta, ordainetan, irakaskuntza arautuan egin beharreko irakasjarduneko ordu-kopurua ordu eta erdi murriztuko zaio irakaskuntza ez-arautuan egindako ordu bakoitzeko.

Ildo beretik, eta bateragarritasunen araubidea erregulatzen duen arautegiari kalterik egin gabe, Hezkuntza Sailak hitzemandu du arlo publikoko irakasleek horrekin zerikusia duten jarduera ez-arautuetan duten partaidetza arautzera bideratutako ekintzak aztertuko dituela; honela, ordainsarrietan oinarritutako egungo sistemaren ordeztu ordu-murrizketetan oinarritutako sistema jarri ahal izango da.

**56. artikulua.**— Partzialki ordaindutako baimena.

Batzorde Parekideak 2003/04 ikasturtea amaitu aurretik jakinaraziko du zein baldintza bete beharko dituzten Hitzarmen honen eraginpean dauden langileek partzialki ordaindutako baimena eskuratzeko (baimen hau unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Erabakiaren 73.2 artikuluan aurreikusten da).

ZAZPIGARREN TITULUA  
BIRZIKLATZEA, PRESTATZEA ETA  
EUSKALDUNTZEA

**57. artikulua.**— Langileen prestakuntza eta hobekuntza.

1.— Kolektiboak bere eginkizunak betetzean beharrezkotzat ageri diren prestakuntza-premiei erantzuteko, eta kolektiboaren lanbide-prestakuntza, egokitzatza

La concesión de reducción de jornada será incompatible con cualquier otra actividad laboral remunerada, durante el horario objeto de la reducción. La solicitud será por un plazo mínimo de un año. Una vez interrumpido este permiso no cabrá nueva solicitud hasta transcurridos 3 años desde la finalización de su disfrute. Sólo podrá solicitarse después de haber transcurrido dos años del ingreso o reingreso en el servicio activo.

**Artículo 54.**— Excedencia Especial.

El/la trabajador/a con dos años de antigüedad en la empresa tendrá derecho a situarse en excedencia voluntaria especial con reserva del puesto de trabajo en el mismo centro donde presta sus servicios, por el período mínimo de seis meses y máximo de un año (debiendo en el caso del personal docente coincidir -en este último caso- con alguno de los siguientes periodos: agosto-enero o febrero-julio). Este derecho no podrá ser ejercitado otra vez por el/la mismo/a trabajador/a si no han transcurrido cinco años desde el final de la anterior excedencia en el caso de personal docente y dos años desde el final de la anterior excedencia en el caso de personal educativo.

**Artículo 55.**— Regulación de la actividad docente al margen de la enseñanza reglada.

El personal docente de F.P. que imparta clases en enseñanza no reglada no podrá cobrar por las mismas, reduciéndosele, en compensación, las horas de jornada lectiva en enseñanza reglada a razón de hora y media por cada hora de no reglada.

En este mismo sentido -sin perjuicio de la normativa que regula el régimen de compatibilidades-, el Departamento de Educación se compromete a estudiar las acciones tendentes a regular la participación del personal docente del sector público en las distintas actividades no regladas relacionadas con el mismo, con objeto de sustituir el sistema actual de percepciones económicas por un sistema alternativo de reducciones horarias.

**Artículo 56.**— Permiso con retribución parcial.

La Comisión Paritaria establecerá, antes de la finalización del curso escolar 2003/04, los términos en los que se extiende al personal al que es de aplicación este Convenio la fórmula de permiso con retribución parcial prevista en el artículo 73.2 del vigente Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario.

TITULO SEPTIMO  
RECICLAJE, FORMACIÓN  
Y EUSKALDUNIZACION

**Artículo 57.**— Formación y perfeccionamiento profesional.

